



## Burujaetzari

(GURE ESKU DAGO eta HARTU HITZA  
di namiketan ari diren lagunak gogoan)

Egilea: Aitor Errazkin Vicente

1.-

Eskola-ume orori  
berdin du zein herritan  
galdetzen zaio zer izan  
nahi lukeen handitan.  
Neurri bereko galderak  
nahi ditugu karrikan,  
inork inoiz jarriko ez  
dituenak auzitan.

Neurri bereko galderak  
nahi ditugu karrikan  
elkarbizitza kolokan  
den adina alditan.

2.- Kultura eta hizkuntza  
propio baten jabe,  
baina haiek babesteko  
eskubiderik gabe.  
Nahiz denborak hatz artetik  
egiten digun alde,  
iraganaren lezio  
oro daukagu alde.

Nahiz denborak hatz artetik  
egiten digun alde,  
oraina eta geroa  
gure eskuetan daude.

3.- Denboraren menpe bizi  
gara, gauza jakina,  
baina ezerk ez gaitzala  
muga horrek adina;  
beste inork ezarria  
bada gure ezina,  
erantzuteko jadani  
badaukagu adina.

beste inork ezarria  
bada gure ezina,  
egin dezagun kateak  
hausteko ahalegina.

4.- Txoria joan ez dadin  
hego biak ebaki  
hori zuzena ez dela  
mundu osoak daki.  
Nola uka dakioke  
geroa herri bati?  
Jolastokiak bihurtu  
behar al dira lubaki?

Nola uka dakioke  
geroa herri bati?  
Hitza har dezagun eta  
geurea erabaki.

## El Pilar LH3

### NIRE TXOKO KUTTUNA: LA CORNICHE

Egonezina sortzen dit zerbaitek, falta diren kontrolek, errekuaperaketek, Gabonetako festibalak, eskola bukatzeak, Gabonek, familia ikusteak... Horrela sentitzen naizenean, Hendaiako leku goxo honetara etortzen naiz.



Lehenengo begiradan kolore beltzak, grisak eta berdeak sotzen dituzte harriak. Ura haserre dago, harriak pixkanaka-pixkanaka janez. Nire alboan dut urezko bainera erraldoia, urez bete-betea. Nire burua bueltaka dabil, zopa mugitzen duzunean bezala. Hurrengo astean dugu festibala, eta entsaiatzeko denborak lepoa hartzen digu ito nahian. Klase bakoitzean minutuak zenbatuak, ez dakigu zer egin. Urduri nago.

Begiak itxi ditut, haize naturala sentizeko. Ixilik, olatuen bidaia entzuten, harriak olatuekin borrokan. Pixkanaka-pixkanaka ilunabarrak gorputza ikutzen dit, oso ondo sentitzen naiz, ni bakarrik nago, gustura, lasai. Festibala nire sormenean galduta; ni, nire gauzetaz hausnartzen. Nire barruan bakarrik bihotza eta birrikak sentitzen ditut. Ezerk ezin nau molestatu, horrela geratu nahi dut betirako.

Bapatean, begirada aurrera bota dut eta berandu da. Ideia berriak ditut festibalerako, eta gaur primeran egingo dut lo. Gauza bakar bat egitea falta zait. Oihukatu beharra daukat eta nire buruari esan diot: "Inorrek ez zaitu entzungo, oihukatuuuu!". Eta esana egina, askoz hobeto sentitzen naiz.

PATRICIA CARCEDO

DBH 2- EL PILAR